



# Euskal Fonetika- Fonologiaren Ikasketarako Gaiak

Oroitz Jauregi Nazabal  
Miren Lourdes Oñederra Olaizola

**EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE  
ARGITALPENA**

ISBN 978-84-9082-131-2

Liburu honek UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren dirulaguntza  
jaso du

## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera
2. Fonetika lantzeko atala
  - 2.1. Fonetika artikulatorioa
  - 2.2. Fonetika akustikoa
  - 2.3. Transkripzio-ariketak
3. Fonologia lantzeko atala
  - 3.1. Tasun bitarrak
  - 3.2. Testu-lana
    - 3.2.1. R. Lass-en testua (1984)
    - 3.2.2. B. Hurch-en testua (1988)
    - 3.2.3. M.G. Busà-ren testua (2007)
    - 3.2.4. R. Shosted-en testua (2011)
    - 3.2.5. P. Donegan-en testua (1995)
    - 3.2.6. P. Donegan eta D. Stampe-ren testua (1979)
  - 3.3. Analisi-ariketak
    - 3.3.1. Corpus idatziak
      - 3.3.1.1 Alemana
      - 3.3.1.2. Swahilia
      - 3.3.1.3. Donostiako euskara
      - 3.3.1.4 Oñatiko euskara

3.3.1.5. Baztango euskara

3.3.2. Ahozko corpusak

3.3.2.1. Astigarragako euskara

3.3.2.2. Astigarragako euskara

3.3.2.3. Astigarragako euskara

3.3.2.4. Astigarragako euskara

## **Eranskinak**

1. IPA taula
2. Euskarazko transkripzioetarako ikurrak
3. Irakurketa gomedatuak

## SARRERA

Ariketa-liburu honetan biltzen dira, alde batetik, euskarazko fonetika artikulatorioa eta akustikoa, eta, beste alde batetik, euskal fonologia lantzeko ariketa praktikoak. Azken urteetan, EHuko Euskal Ikasketetako Graduko ikasleentzat Euskal Fonetika eta Fonologia I eta Euskal Fonetika eta Fonologia II ikasgaietan eta ikasgaietarako sortu eta ondu diren ariketak dira. Liburu hau sortzearen arrazoia da erabiltzaile izan daitezkeen guztiei ariketa praktikoak eskura jartzea.

Honekin batera, ikasketa eta hausnarketa piztu nahi dira ariketa hauek eginez, liburua erabiltzen dutenek euskal fonetika eta fonologiari buruzko oinarrizko ezagutza izan dezaten, eta, era berean, nahi da liburuak bide eman dezan euskarazko fonetika eta fonologia ulertzeko eta jakintza barneratzeko.

Liburuaren irakurleak, beraz, goi graduoko ikasleak izango dira batez ere, fonetika eta fonologia lantzen den eremuren bateko ikasleak, hain zuzen ere. Ikasgeletan ariketa praktikoak egiteko erabili ahal izango da, betiere irakasleek beren ikasgaiaren egoerara eta mailara egokituta. Era berean, ikasle bakoitzak bere kabuz ikasteko ere balia dezake liburua; fonetika eta fonologiako eremuaz jabetzeko eta oinarria finkatzeko erabili ahal izango ditu ariketak, bakoitzak bere beharren arabera.

Era honetako liburuekin ez da ordezkatu nahi ikasleek ikasketa-prozesuan egin ohi duten ibilbidea eta ohiko duten lan moldea. Ariketak burutu ahal izateko, nahitaezkoa da oinarrizko jakintza emango dien ibilbidea egitea, batez ere bibliografia-kontsulta zehatzak eginez. Horregatik, eranskinetan aurkezten da kontsultatzeko gomendagarri diren liburuuen zerrenda.

Liburuan, fonetikako eta fonologiako ariketak aurkezten dira. Fonetikako ariketetan, banaketa egiten da fonetika artikulatorioa eta fonetika akustikoa lantzeko ariketen artean. Horiekin batera, transkripzio-ariketak ere aurkezten dira.

Fonetika artikulatorioa lantzen hasteko, zenbait jakintza barneratuak izan behar ditu aurretik ikasleak:

- a) Fonazio-aparatuaren anatomia orokorra; adibidez, fonazio-aparatuan dauden organoak eta barrunbeak identifikatzen jakin beharko du, eta baita hizketa-hotsak sortzean organo edo barrunbe bakoitzaren garrantzia zein den ere.
- b) Euskarazko hotsen deskripzio eta sailkapen artikulatorioa zein den jakin beharko du.

Fonetika artikulatorioaren oinarrizko jakintza horrez gain, aurrez ikasitzat ematen da hizkuntzaren aldaera dialektalei buruzko ezagutza orokorra (euskalkien arteko desberdintasun fonetiko nagusiak). Era berean, transkripzio fonetikoa egiteko konbentzioak eta teknikak ere barneratuak izan behar ditu liburuaren erabiltzaileak. Azken puntuari dagokionez, NAFi (Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa: IPA International Phonetic Alphabet) jarraituko zaio liburuan.

NAF taulari dagokionez, kontuan hartu beharko dira euskarazko igurzkari hobikarien sailkapena egiteko erabili behar diren diakritikoak. Alegia, NAF taulan igurzkari hobikari bakarra agertzen den arren, euskaraz igurzkari hobikari apikariak zein lepokariak bereizten dira zenbait hizkeratan, eta diakritikoak erabili behar dira bereizkuntza hori egiteko.

Era berean, aipagarria da, NAF taulan zenbait hots modu batera sailkatzen diren arren, euskaraz hots horiek beste molde batez ekoizten direla; hala nola, esan daiteke euskaraz horzkari direla NAF taulan herskari hobikari ahostun zein ahoskabe agertzen diren hotsak. [d] eta [t] hotsez ari gara hemen.

Horren haritik, esan behar da, era berean, euskaraz tradizionalki igurzkari sabaikari terminoarekin izendatutakoa hobiatzeko gisa agertzen dela NAF taulan, nahiz hots sabaiaurreko gisa ere izendatu den beste zenbait tradiziota.

Fonetika artikulatorioari dagokionez, esan behar da esplorazio-teknika aurreratuenak ez direla liburuan azaltzen, hala nola elektropalatograma.

Fonetika akustikoko ariketei dagokienez, ikasleek honako alderdi hauei buruzko oinarrizko ezagutza izan behar dute:

- a) Akustika orokorrari buruzko oinarrizko ezagutza izateaz gain, uhinak eta espektroak interpretatzeko gaitasuna izan behar dute.
- b) Iturri-filtroa teoriari buruzko ezagutza orokorra izan behar dute.

Hemen fonetika akustikoaz aipatu eta lantzen direnak oinarrizko mailari dagozkio materia honetan, eta gai hori lantzen duten eskuliburueta edo erreferentzialiburueta aurki daiteke informazioa. Terminologiari dagokionez, egokitua dago fisikan edo akustikan formazio aurreraturik ez duten ikasleentzat.

Fonetikako transkripzio-arikelei dagokienez, ohikoenak ahoz egindako ariketak izan ohi diren arren, kasu honetan, liburua izanik euskarria, idatzizkoak aurkezten dira (ahozkoak klasean lantzen dira). Nagusiki euskarazko formen transkripzioak landuko dira, baina ez horiek bakarrik, transkripzioen bidez emango baita euskaraz ezinezko diren hots eta hots-bilkuren berri ere.

Transkripzio fonetikoa egiteko konbentzioak eta teknikak barneratuak izan behar ditu liburuaren erabiltzaileak. Ikasleak jakin behar du, esaterako, transkripzio ortografikoaren eta fonetikoaren artean dagoen desberdintasuna.

Hemen aurkezten diren ariketetan, bereizketa hirukoitzaz egin behar da batez ere: alde batetik, euskarazko hitzak; beste alde batetik, euskarazko hitz izan litekeena baina ez dena; eta, azkenik, euskaraz ezinezko diren formak. Azken kasuan, bi motatako arrazoia aurki daitezke: batetik, euskaraz ez dagoen hotsen bat izatea, eta, bestetik, euskaraz agertzen ez diren bilkuretan agertzea hotsak. Ikasleak jakin beharko du arrazoibide egokia ematen.

Fonologiako atalari dagokionez, ikasleak fonologiako oinarrizko kontzeptuen berri izan behar du. Hemen aurkezten diren testuek zein ariketek lagunduko diote zeregin hori indartzen eta finkatzen, prestatuak baitaude fonologia orokorraren muin diren ideiak zein kontzeptuak barneratzeko. Horrekin batera, ariketak egokituak daude euskal fonologiaren oinarrizko ezaugarriak lantzeko eta bereganatzeko. Aipagarria da ariketek edozein hizkuntzaren analisi fonologikoa egiteko oinarria eskaintzen dutela; horregatik, liburu honetan batez ere euskarari egokituak badaude ere, badira euskara ez den hizkuntzakin egindako ariketak ere.

Fonologia lantzeko atal honetan bi azpiatal bereizten dira, landu beharreko ariketen arabera antolatuak. Alde batetik, hainbat autoreren idatzizko testuak biltzen dira. Atal horretan testu-lanketa proposatzen da, fonologiako oinarrizko kontzeptuak eta terminoak bereganatzen lagunduko dutenak. Testu-lanketa egiteko gida eskaintzen da eranskinetan. Ikaslea, gidan agertzen diren pausoei jarraituz, gai izan behar da testuaren lanketan testua eta egilea testuinguruan kokatzeko, ideia nagusiak identifikatzeko eta ideia horiek bestelako kontzeptuekin harremanetan jartzeko, besteren artean. Fonologiaren barnean gai desberdinak jorratzen dituzten testuak biltzen dira: fonologiako oinarrizko kontzeptuen azalpena, fonetika eta fonologiaren arteko harremana, bilakabide fonologiko jakin baten trataera, eta abar. Adierazi behar da ikasleak bereganatuak izan behar dituela fonologiako oinarrizko kontzeptuak. Ariketa hauek pentsatuak daude kontzeptu eta ideia horiek lantzeko, azpimarratzeko, gogoeta eragiteko. Aipatu behar da testuak ingelesez daudela, gaur egun bibliografia gehiena ingelesez egina dagoelako, eta uste dugulako euskal hizkuntzalariaren trebakuntzan ezinbesteko osagaia dela linguistikako literatura ingelesez irakurtzeko gaitasuna lortzea.

Beste alde batetik, datuen analisien atala dago, idatzizko corpusak zein ahozko corpusak biltzen dituena. Idatzizko corpusean, analisirako prest dagoen corpora


aurkezten zaio ikasleari; ahozko corpusean, berriz, hizketa naturala aurkezten zaio audio bidez eta ikasleak atera beharko ditu analisirako datuak; horretarako, irakaslearen gida izango du eskoletan. Bai idatzizko bai ahozko corpusetan, hainbat euskal hizkeratako datuak aurkezten dira, eta, gorago esan bezala, hizkuntza desberdinetako datuak ere aurkezten dira horiekin batera. Ariketa horien helburua da, batez ere, euskal hizkera desberdinetan gertatzen diren bilakabide fonologiko hainbatetan lanketa egitea. Eginbide horretan, ikasleentzat lagungarri izango delakoan, datuen analisirako eta aurkezpenerako eskema aurkezten da.

Eskerrak ematerakoan, ezin ditugu aipatu gabe utzi urte hauetan guztieta Fonetika eta Fonologia I eta II ikasgaietan ikasle izan direnak, beren ekarpena nahitaezkoa izan baita liburu hau osatzean. Ezin ahaztu João Veloso adiskidea, bere lanetako hainbat material eskura uzteagatik.

## 2. FONETIKA LANTZEKO ATALA

### 2.1. FONETIKA ARTIKULATORIOA

1. Begira iezaiozu honako irudi honi:



2. Begira iezaiozu, berriro ere, aurreko irudiari.
  - 2.1.1. Marka ezazu, era argian, faringe-barrunbea.
  - 2.1.2. Bereiz ezazu aho-barrunbea.
  - 2.1.3. Bereiz ezazu sudur-barrunbea.

3. Aurreko irudiari begiratuta, koka itzazu ahots-bideko organoen izenak.

4. Fonetika ikastean, termino tekniko ugari ikasi behar dira. Ahoska ezazu behean agertzen den hitz bakoitza eta entzun hotsak.

a) Marka itzazu kontsonante biezpainkariz hasten diren hitzak:

gora    behera        mihi    lupa    pipa    hitzak

b) Marka itzazu kontsonante belarrez hasten diren hitzak:

zor    gor    buru    loro    radar    dado    kako

c) Marka itzazu kontsonante ezpain-horzkariz hasten diren hitzak:

sor    gor    fin    zin    anfora        papata

d) Marka itzazu kontsonante hobikariz hasten diren hitzak:

nora    lurra    radio    buru    zura    sua    ura

e) Marka itzazu kontsonante horzkariz hasten diren hitzak:

goi    tapa    belar    dado    zoro    tapoi

f) Marka itzazu kontsonante sabaiaurrekoz hasten diren hitzak:

sua    xuban    zaunka        ke    lo    jaboi

g) Marka itzazu kontsonante igurzkariz amaitzen diren hitzak:

ez    non    lur    sasoiz        eskuz        bular

h) Marka itzazu kontsonante sudurkariz amaitzen diren hitzak:

non    ron    lur    bider        hots    garun

i) Marka itzazu kontsonante herskariz amaitzen diren hitzak:

bat    nor    eup    zuzen        haitz    lehor

j) Marka itzazu kontsonante albokariz hasten diren hitzak:

aurre    lau    sei    bide    ñaño    llabur

k) Marka itzazu kontsonante hurbilkariz hasten diren hitzak:

jan    bizi    edan    jardun        katu

l) Marka itzazu kontsonante ahoskabez amaitzen diren hitzak:

bat    bost    hark    bider    zenbat        egon

m) Marka itzazu kontsonante afrikatuz amaitzen diren hitzak:

hartz    arkaitz        berriz        azal

n) Marka itzazu erdiko kontsonantea ahostuna duten hitzak:

bide    sasoi    zuzen    zure    arra    eme

ñ) Marka itzazu beheko bokala duten hitzak:

lur    lar    non    zer    fin

- o) Marka itzazu goiko bokala duten hitzak:  
zahar zur leher fin mahats
- p) Marka itzazu aurreko bokala duten hitzak:  
luze bide zero goru lagun
- q) Marka itzazu atzeko bokala duten hitzak:  
nota tabu goren lehor
- r) Marka itzazu bokal biribila duten hitzak:  
zeru gara luze zeta gora

5. Zenbat hots ditu honako hitz bakoitzak?

gain

hantxe

txantxo

zail

6. Begira iezariezu honako diagrama hauei eta esan ezazu euskarazko zein hots irudika dezakeen irudi bakoitzak.




A


B

C

7. Begira iezaiez honako bi irudi hauei eta esan ezazu bietako zein kontsonantek irudika dezakeen [+aurreko] kontsonante bat. Arrazoitu ezazu erantzuna.



8. Begira iezaiez honako bi irudi hauei eta aldera itzazu, batez ere, bien arteko alderdi artikulatorioei begiratuz.



9. Esan ezazu hotsak sortzean zer nolako zeregina duten honako organo hauak edo ahots-bideko barrunbeak.

- a) Ahots-kordak
- b) Ahosabai biguna
- c) Mihia
- d) Ezpainak
- e) Aho-barrunbea

10. Identifika itzazu honako kontsonante hauen ekoizpenean parte hartzen duten artikulatzailaileak.

- a) /d/
- b) /g/
- c) /p/
- d) /s/

e) /z/

f) /ŋ/

11. Sailka itzazu artikulatorioki, fonetika tradizionalaren arabera, euskarazko *nahiz* hitzaren hotsak (artikulazio modua, ahoskunea eta ahostuntasuna kontuan hartuta).

12. Esan ezazu zein den *bider* hitzaren kontsonanteen eta bokalen sailkapen artikulatorioa.

13. Esan ezazu zein den honako euskarazko hots hauen sailkapen artikulatorio tradizionala:

[x]

[ŋ]

[β]

[ɾ]

[m̪]

[ʎ]

[θ]

[ʒ]

[h]

[ɣ]

[i]

[u]

[f]

14. Egin ezazu *zaldi* hitzeko hots bakoitzaren sailkapen artikulatorioa eta justifika ezazu hots bakoitzaren sailkapena, bere ekoizpenean gertatzen diren mugimendu artikulatorioen arabera.

15. Esan ezazu zein den *nongo* hitzeko hotsen sailkapen artikulatorio tradizionala.

16. Sailka itzazu ezkerreko zutabeko hitzen erdian dauden kontsonante hotsak, ahostuntasun, ahoskune eta artikulazio moduaren arabera:

	artikulazio modua	ahoskunea	ahostuntasuna
larre			
zeru			
laga			
zine			
babo			
lapa			
zama			
laxo			
luze			
gona			
piña			
lata			
laka			
bada			
kafe			
bila			
pitza			
mahai			
itsu			
etxe			

17. Deskriba ezazu artikulatorioki euskaraz ohikoa den *herskari ahostunen igurzkaritza* bariazio alofonikoa.

18. Deskriba ezazu artikulatorioki euskaraz ohikoa den *kontsonante sudurkarien belarizazioa kontsonante belarraren aurretik* bariazio alofonikoa.

19. Deskriba ezazu artikulatorioki euskaraz ohikoa den *bokalen sudurkaritza konsonante sudurkarien aurretik* bariazio alofonikoa.

20. Deskriba ezazu honako hots hauetako airearen bidea:

- 20.1. [m]
- 20.2. [b]
- 20.3. [o]
- 20.4. [s]
- 20.5. [t]
- 20.6. [a]

21. Azal itzazu honako hots pare hauen arteko desberdintasun artikulatorioak:

- 21.1. [p] eta [m]
- 21.2. [d] eta [n]
- 21.3. [o] eta [õ]
- 21.4. [k] eta [g]
- 21.5. [d] eta [b]
- 21.6. [t] eta [n]
- 21.7. [m] eta [n]
- 21.8. [p] eta [b]

22. Azal itzazu honako hots pare hauen artean dauden artikulazio ekoizpen-desberdintasunak:

- 22.1. kontsonante herskaria eta igurzkaria
- 22.2. hots sudurkaria eta hots ahokaria
- 22.3. bokala eta kontsonantea
- 22.4. hots ahostuna eta ahoskabea
- 22.5 bokal biribildua eta ez-biribildua

23. *Bide polit eta malkartsuak aurkituko dituzu*

- 23.1. Egin ezazu esaldiaren transkripzio fonetikoa.
- 23.2. Testuan badira bi hitz jarraian kontsonante herskariz hasten direnak eta ahostuntasunean desberdin direnak.
  - 23.2.1. Identifika itzazu hitz horiek.
  - 23.2.2. Sailka itzazu artikulatorioki hasierako kontsonante horiek.
  - 23.2.3. Transkribatutako esalditik, aukera ezazu hitz bat bokal biribildu ahokari erdi-irekia duena.

24. Sor ezazu esaldi bat, honako hots hauez hasten diren bost hitz jarraian dituena:

- 24.1. Goiko bokal biribildu ahokaria
- 24.2. Kontsonante sudurkari biezpainlesska
- 24.3. Kontsonante herskari belar ahoskabea
- 24.4. Kontsonante herskari biezpainlesska ahostuna
- 24.5. Kontsonante igurzkari hobikari ahoskabea

25. Transkriba ezazu, fonetikoki, *hiztegia* hitza. Hitz horretan, azpimarra ezazu:

- 25.1. Beheko bokala
- 25.2. Kontsonante ahostuna
- 25.3. Kontsonante ahoskabea

26. Esan ezazu euskarazko hitz bat kontsonante [+jarraitu] eta kontsonante [-jarraitu] dituena. Ondoren, deskriba ezazu kontsonante [-jarraitu]aren ekoizpen artikulatorioa.

27. *Umetasuna* hitzaren ekoizpenean, badira ahots-korden funtzionamendu desberdina duten kontsonanteak zein ahosabai bigunaren funtzionamendu desberdina dutenak.

- 27.1. Azal ezazu bi organo horiek duten zeregina hitz horretako kontsonanteak ekoiztean.
- 27.2. Egin ezazu hitzaren kontsonante guztien sailkapen artikulatorioa.

28. Esan ezazu zein den egia eta zein gezur honako baieztapen hauetatik:

- 28.1. Euskaraz aurreko bokal guztiak ez-biribilduak dira, baina bokal ez-biribildu guztiak aurrekoak dira.
- 28.2. [b m ñ] ekoizteko, posizio berean dago ahosabai biguna.
- 28.3. Euskarazko kontsonante ahostun guztiak ahokariak dira.

29. Lot ezazu A taldeko hitz bakoitza B taldeko hitz sinonimo batekin, edo oso antzeko esanahia duen batekin.

A	B
glotisa	arnasarako aire-otorria
erdibokala	glide
aho-barrunbea	igurzkari hobikaria

aire-etorri fonikoa	laringea
aho-traktua	glotis gaineko barrunbea
txistukaria	ahoa

## 2.2. FONETIKA AKUSTIKOA

1. Kontu egin A, B eta C hiru hots direla; hots bakoitzak bere partzialak ditu.

A	B	C
60 Hz	120 Hz	132 Hz
120 Hz	240 Hz	226 Hz
180 Hz	360 Hz	289 Hz
240 Hz	480 Hz	451 Hz
300 Hz	600 Hz	679 Hz
	720 Hz	1225 Hz
	840 Hz	
	960 Hz	

- 1.1 Hots horietariko zeinek du egitura harmonikoa eta zeinek ez-harmonikoa? Zergatik?
- 1.2 Aurreko erantzunaren arabera, egitura harmonikoa duela esan baduzu, esan ezazu zein den oinarrizkoa eta zein diren gainerako harmonikoak.
- 1.3 Uste duzu B hotseko maiztasun simpleak laringe-tonu baten partzialak direla?
- 1.4 Aurreko galderari baiezkoa emanet gero, identifika itzazu beren artean 12 dB-ko tarte-desberdintasuna izango luketen partzialak.

2. Ikus honako maiztasun hauek:

600 Hz  
250 Hz  
430 Hz  
950 Hz  
120 Hz  
335 Hz

- 2.1. Ordenatu grabeenetik akutuenera.
- 2.2. Maiztasunak bata bestearen gainean ezarrita, hots periodikoa edo aperiodikoa izango genuke? Zergatik?

3. Har itzazu A eta B hots desberdinaren partzialen zerrendatzat:

A	B
40 Hz	10 Hz
80 Hz	35 Hz
120 Hz	55 Hz
160 Hz	79 Hz
240 Hz	224 Hz

3.1. Bi hotsetariko zein izango litzateke hots periodikoa? Eta zein aperiodikoa?

3.2. Hots periodikoan, identifika ezazu oinarritzko eta zerrendatu bere harmoniko guztiak.

4. Honako maiztasun hauei begiratuta, ordenatu itzazu grabeenetik akutuenera.

- 665 Hz
- 290 Hz
- 491 Hz
- 990 Hz
- 170 Hz
- 378 Hz

Maiztasunak bata bestearen gainean ezarrita, hots periodikoa edo aperiodikoa sortuko litzateke? Arrazoitu ezazu erantzuna.

5. Definitu, laburki, zure hitzetan, akustikako oinarritzko kontzeptuok:

- hots simplea
- hots konplexua
- hots periodikoa
- hots aperiodikoa
- partziala
- oinarrizko maiztasuna
- harmonikoa

6. A eta B hots konplexuak dira, eta bereizitako maiztasun bakoitzak partziala da.

A

80 Hz

320 Hz

400 Hz

160 Hz

480 Hz

240 Hz

B

38 Hz

195 Hz

63 Hz

672 Hz


900 Hz

6.1. Bi hotsetako bat hots periodikoa da eta bestea aperiodikoa. Identifika itzazu eta arrazoitu erantzuna.


6.2. Identifikatu hots periodikoaren oinarrizko maiztasuna. Nola deritze gainerako partzialei?

6.3. Ordena itzazu hotsen partzialak, A hotsean grabeenetik akutuenera eta B hotsean akutuenetik grabeenera.


7. Ikus itzazu honako bi uhin hauek. Zein dagokio hots periodiko bati eta zein hots aperiodiko bati? Arrazoitu ezazu erantzuna.




8. Begiratu honako irudi hau, eta esan ezazu, justifikatuz, laringe-iturria duen lerrozko espektro bat izan daitekeen.



9. Begira itzazu honako irudi hauek:



- 9.1. Esan ezazu hiruretatik zeinek irudikatzen duen hotsik grabeena eta zeinek hotsik akutuena.
- 9.2. Hirurak gainjarrita, hots periodikoa edo aperiodikoa lortuko genuke?
- 9.3. Uhin guztien abiapuntua fase berbera dela ziurtatuta, esan ezazu, arrazoituz, zein den uhinak gainjarrita lortuko genukeen hots-uhin konplexuaren maiztasuna.
10. Honako uhin hauei begiratuta, esan ezazu zein dagokion bokal bati eta zein igurzkari bati.




A



B

11. Honako bi irudi hauek akustikak ikertzen dituen hotsen irudikapen grafikoak dira.




11.1. Jar iezariezu izena irudi grafiko horiei eta azal itzazu bi irudien arteko desberdintasun nagusiak.

11.2. Bi irudietako zeinetarik atera ditzakegu hots konplexu baten partzialak? Zergatik?

11.3. Bi irudietako zeinetarik atera dezakegu seinale akustikoaren garapena denboran zehar? Zergatik?

12. Espektrograma-ariketak


a)



Ikusten duzu inolako eredurik irudi honetan?


Zein hots mota identifika dezakezu? Zergatik?


b)



Zein hots mota identifika ditzakezu espektrograma honetan? Egin dezakezu bereizkuntzarik bokalen eta kontsonanteen artean? Hala bada, zein desberdintasun nagusi antzeman daiteke bi talde horien artean?

c)






Esan ezazu zer ikusten duzun desberdin bi espektrograma horien artean.

d) Ondoren, hainbat espektrograma-irudi agertzen dira. Espektrograma bakoitza begiratu ondoren, erantzun itzazu honako galdera hauek, arrazoituz:


1. Zenbat hots daudela esango zenuke espektrograma bakoitzean?
2. Zein hots mota direla esango zenuke?

Espektrograma bakoitzaren ondoan euskal hitz bat osatzen duten hotsak aurki daitezke. Saia zaitez zein euskal hitz islatzen den asmatzen, betiere erantzuna argudiatuz.


a) [p] [a] [t] [a] [e]




b) [o] [a] [i] [p] [tʃ]




c) [o] [e] [i] [k] [s]




d) [a] [a] [a] [a] [t] [l] [n] [m]




e) [a] [a] [o] [m] [n]



f) [a] [e] [ɛ] [r] [ð]



g) [l] [e] [ɛ]



### 2.3. TRANSKRIPZIO-ARIKETAK

1. Honako ariketa hauek transkripzio fonetikoak lantzeko sortuak daude. «Hotsak» izeneko kutxetan biltzen diren hotsak nahi bezala ordenatu behar dira eta formak sortu. Sortutako formak izan daitezke euskal hitzak, beste hizkuntza bateko hitzak, nahiz bestelako formak. Nahi izanez gero, diakritikoak ere gehi daitezke. Formak sortuta, esan ezazu:

- a) Benetako euskal hitza den.
- b) Euskaraz ez dagoen forma izan arren, fonetikaren aldetik euskarazkotzat har litekeen.
- c) Euskarazko ingurune-baldintzak hausten dituen forma den. Kasu honetan, azal ezazu zertan datzan hauste hori.

Hotsak	Sortutako hitza	Sailkapena: a, b edo c	Sortutako hitza c bada, eman ezazu arrazoia
u, w, t, i, s, k, a			
a, r, a, o tʃ			
o, r, γ, a, o			
g, a, r, k, o, ʃ, o			
k, t, λ, e, a, u			
m, β, t, u, j, a			
s, n, d, a, e, i, γ			
ŋ, k, f, a, o			

2. Aurki itzazu honako transkripzio fonetiko hauetan dauden akatsak. Hitz bakoitzean akats bat dago, euskarazko hitzun natibo batek ahoskatuko ez lukeen aldaera aurkezten baita. Egin ezazu transkripzio zuzena.

[kajxo]

[billatu]

[anxo]

[informea]

[crocodiloa]

[saxoj]

3. Begiratu honako esaldi hauei:

Beti zauritzen nauten hitzetatik ihesi noa.

Burua galdu, bihotza eman.

Gustazen zait gaez iristea urrutiko lekuetara.

Ez da biderik, norberak ireki behar dituelako

3.1. Egin ezazu esaldi bakoitzaren transkripzio fonetikoa.

3.2. Transkribatutako esaldietan, aukera itzazu honako hots hauek dituzten hitzak:

Kontsonante herskari biezpainkari ahoskabea

Kontsonante dardarkari apikaria

Kontsonante herskari belar ahostuna

4. «Makila eskuan hartu, zauria trapuz estali, eta korrika joan zen»

Euskalkien arteko aldakortasun nagusiei buruz duzun oinarrizko jakintzaz baliatuz, esan ezazu nola transkribatuko litzatekeen goikoa. Lehenengo hitzunak ekialdeko hizkeren ekoizpena islatuko luke; bigarren hitzunak erdialdeko hizkeraren ekoizpena, eta hirugarrenak mendebaldeko hizkeretako ekoizpena. Azal itzazu transkripzioen arteko desberdintasun nagusiak. (Beharrezko diren aldaketa lexikoak egin daitezke).

### 3. FONOLOGIA LANTZEKO ATALA

#### 3.1. TASUN BITARRAK

TASUN BITARREN ARABERAKO ARABERAKO HOTSEN SAILKAPENA.

(RING-EN 1981ETIK EGOKITUA)

Sailkapen hau binarioa eta erabatekoa da. Alegia, hots mota guztiak sailkatzen dira tasun bakoitzari dagokionez, nahiz fonetikoki ez diren beti guztiak egokitzen delako tasun baten baiezkoan edo ezezkoan. Halakoak azpimarratu egin dira, eta oin-oharren bidez azaldu. Bestalde, euskaraz ez dauden hots klaseak itzal grisez markatu dira.

SILABAGILE (*SYLLABIC*)

[+SILABAGILE]: bokalak, kontsonante silabagileak

[-SILABAGILE]: irristariak, gainerako kontsonanteak

OZEN (*SONORANT*)

[+OZEN]: bokalak, sudurkariak, urkariak, irristariak

[-OZEN]: herskariak, igurzkariak, afrikatuak (alegia, TRABARIAK)

KONTSONANTIKO (*CONSONANTAL*)

[+KONTSONANTIKO]: herskariak, igurzkariak, afrikatuak, sudurkariak, urkariak

[-KONTSONANTIKO]: bokalak eta irristariak

JARRAITU (*CONTINUANT*)<sup>1</sup>

[+JARRAITU]: bokalak, irristariak, hasperena [h], urkariak, igurzkariak

[-JARRAITU]: herskariak, afrikatuak, sudurkariak, [?]

LAXATZE LUZATUA (= [ $\pm$ ]JARRAITU?) (*DELAYED RELEASE*)

[+LAXAKETA LUZAKORRA]: afrikatuak

---

<sup>1</sup> Sailkapen hau ez zaio guztiz egokitzen azpimarratutakoena izaera fonetiko bikoitzari.

[-LAXAKETA LUZAKORRA]: afrikatuak ez beste [-JARR] guztiak<sup>2</sup>

#### KARRANKARI (*STRIDENT*)

[+KARRANKARI]: [f, v], [s, z]<sup>3</sup>, [ʃ, ʒ] eta [χ, ʁ]

[-KARRANKARI]: [ɸ, β], [θ, ð], [ç, j], [x, γ]. Halaber, bokalak, irristariak eta gainerako kontsonanteak

#### SUDURKARI (*NASAL*)

[+SUDURKARI]: herskari sudurkariak, bokal sudurkari(tu)ak, eta gainerako hots sudurkarituak

[-SUDURKARI]: gainerakoak (alegia, AHOKARIAK)

#### ALBOKARI (*LATERAL*)

[+ALBOKARI]: kontsonante albokariak (euskaraz [l, ʎ])

[+ALBOKARI]: gainerako hotsak

#### AURREKO<sup>4</sup> <sup>4</sup>(*FRONT*)

[+AURREKO]: kontsonante ezpainlessatik hertz-hobikarietarainoak

[-AURREKO]: kontsonante sabaiaurrekoetatik faringaletarainokoak

#### KOROARI (*CORONAL*)

[+KOROARI]: kontsonante horzkari, hertz-hobikari eta sabaiaurrekoak

[-KOROARI]: kontsonante ezpainlessatik, ezpainless-horzkariak eta sabaikarietatik faringaletarainokoak

#### GOIKO (*HIGH*)

[+GOIKO]: goiko bokalak eta [j, w] irristariak; kontsonante sabaiaurreko, sabaikari eta belarrak; kontsonante palatalizatu, belartu eta ezpainlessatik

[-GOIKO]: arteko eta beheko bokalak, irristari laringalak, aurreko kontsonanteak, kontsonante irauliak, ubular, faringal eta faringalduak

#### BEHEKO (*LOW*)

[+BEHEKO]: beheko bokalak, irristari laringalak, kontsonante faringal eta faringalduak

[-BEHEKO]: arteko eta goiko bokalak eta [j, w] irristariak, kontsonante faringal eta

---

<sup>2</sup> Berez eta bete-betean, herskariak bakarrik sartzen dira sail honetan, hersketarik ez duen hotsak ezin bailezake laxatzerik ere izan.

<sup>3</sup> Hor sartzen dira, bereizten dituzten euskaretan, bai apikariak eta baita lepokariak ere.

<sup>4</sup> Ez da nahasi behar [e, i] bokalei dagokien AITZINEKO (*ANTERIOR*) tasunarekin: ez dago [+aurreko] bokalik. [+aurreko]tzat hartzen dira [ʃ] baino aurreragoko traba duten hotsak.

faringalduak ez beste kontsonante guztiak

#### ATZEKO (*BACK*)

[+ATZEKO]: erdiko eta atzeko bokalak, [w] irristaria, kontsonante belar, ubular eta faringalak, kontsonante ezpainless, belartu eta faringalduak.

[-ATZEKO]: aitzineko bokalak, [j] irristaria, irristari laringalak, kontsonante ezpainless, sabaikarietarainokoak, kontsonante palatalduak.

#### BIRIBIL (*ROUND*)

[+BIRIBIL]: bokal biribilduak, [w, y] irristariak, kontsonante ezpainless.

[-BIRIBIL]: biribildu gabeko bokalak, [j] irristaria, irristari laringalak, ezpainless gabeko kontsonanteak.

#### TINKO (*TENSE*)

[+TINKO]: bokal tinkoak, trabari ahoskabeak, [r] bezalako dardarkariak.

[-TINKO]: bokal laxoak, trabari ahostunak, [r̥] ttaka bezalakoak.

#### AHOTS (*VOICE*)

[+AHOTS]: bokalak eta kontsonante ozenak, trabari ahostunak.

[-AHOTS]: trabari ahoskabeak.

#### HASPERENDUN (*ASPIRATED*)

[+HASPEREN]: [p<sup>h</sup>] bezalako kontsonante hasperendunak

[-HASPEREN]: [p] bezalako kontsonante hasperengabeak

Tasunen zerrenda hau aurrean izanik, esan ezazu nola sailkatuko litzatekeen honako testu hauetako esaldi hauen ahoskera posible bateko hots bakoitza:

1. Zuen berrien zain gelditzen naiz.
2. Hurrengo pausoa norantz izango da?
3. Labur mintza zaitez mesedes, aspertuko gara eta.
4. Ukabila estututa, kantuan ari zen hora.

---

<sup>4</sup> Ez da nahasi behar [e, i] bokalei dagokien AITZINEKO (*ANTERIOR*) tasunarekin: ez dago [+aurreko] bokalik. [ʃ] baino aurreragoko traba duten hotsak hartzen dira [+aurreko]tzat.

### 3.2. TESTU LANA

#### TESTU LANERAKO GIDA

Honako hau testu-lana egiteko gida izateko xedearekin sortua izan denez, hemen aurkezten diren pausoak lagungarri izan daitezke testu-lana aurrera eramateko. Azalpen nagusietan adierazten dira irakurleak testu bakoitza lantzean jarrai ditzakeen puntuak. Jarrai daitezkeen pausoen ondoren, lan-eskema orokorra aurkezten da. Esan beharrik ez dago, aurkezten diren testuen tipologia desberdina izatean, desberdina izan daitekeela egin daitezkeen testu-lanen egitura ere.

Lehen urratsa testua kokatzea da (zer den: liburu bateko kapitulua, artikulua, horietako baten zati bat; neurria, gaia, garaia, etab.). Ahal bada, koka ezazu autorea bera ere: garaia, teoria edo eskola, langaiak, etab. Iruzkinaren oso aintzat hartu behar lirateke testu mota bakoitzaren nondik norako, ezaugarri, helburu eta abarrak, orobat autoreari dagokionez. Horretan guztian, noski, zilegi eta egoki da irakaslearen laguntza eskatzea.

Lan-asmoa zein den edo egin behar dena azaldu behar da, labur, baina ahalik eta zehatzten.

Ondoren, iruzkinaren muinean sartzean, helburua ez da autoreak dioena kontatzea (nola edo hala edukia errepikatzea). Hortik aurrera egin daitezkeenak ugari dira, eta zenbait gauzaren araberakoa da zein bide den egokien:

- a) Norberaren gogo, jakituria, autore edo gaiaren ezagutza.
- b) Testuaren ezaugarriak eta nolakotasuna (zailtasun-maila, egiturabidea, luze-laburra, etab.).
- c) Iruzkinaren egiteko dagoen denbora/luzera muga.
- d) Ikastaroaren zein unetan gauden.

Eta abar.

Ondoren, zenbait gogoetagai posible aurkezten dira:

- Gai nagusia atera eta testuan kokatu.
- Gaiak (zatika –testu osoaren azpiatal ageriko edo ez-agerikoen loturik– ala ez).
- Gai nagusia(k) eta azpigaiak (azpiatalekin loturik ala ez).
- Autoreak erabiltzen dituen termino edo esamoldeak azpimarratzea (ikuspuntu, jarrera, kezka bat adierazten dutenak); errepara, bereziki, autoreak berak erabiltzen dituen letra etzanei, lodiei edo bestelako nabarmentze-bideei.
- Testuaren egituraketa orokorra.
- Gaiari edo gaiei buruzko autorearen «mezua» zein den.
- Aldez aurretik irakurri edo ezagutu dugunarekiko erlazioa (maila berdintasun/desberdintasunak forman edo edukian, adostasun/desadostasunak, etab.).
- Eta beste...

Horietako bat baino gehiago egin daitezke batzuetan.

Azken ohar bat iruzkinaz: egiten dena egiten dela, oso garrantzizkoa da beti ongi bereiztea:

- Zer den autoreak testuan dioena eta norberak dioena. Norberak dioena esateko zein autorearena interpretatzeko, oinarria gero eta sendoago izan eta hobeto azaldu, hobe. Oinarri erabilgarrienetako bat eskoletan jasoa izaten da; komeni da azaltzea erabiltzen den ideia, kontzeptua edo dena delakoa zein eskoletan edo zein tesutingurutan jaso den eta zer den zehazki hortik iruzkinera ekarri nahi dena. Horren barruan, ongi bereizi behar dira:
- datu ziurrak eta ustezko hipotesiak, proposamen teorikoak eta adibideak, anekdota eta maila sakonagoko baieztapen-ezeztapenak, etab.

Bestalde, gogoratu behar da autoreak dioena haren hitzen bidez jasotzen dela zuzenen. Kontuz norberak egindako autorearen parafrasiekin: oso erraza da horrelakoetan irakurlearen interpretazioa autorearen ahotan jartza. Ez erabili komatxoak ez bada aipu literala egiten.

Oro har (testu iruzkin eta gainerakoetarako), garrantzitsuena da norberak dakiena eta ahal duena behar bezala baliatzea. Horretarako, ahalik eta argien, ahalik eta zehatzen adierazi eta aurkeztu behar da esan nahi dena. Horren mesedetan erabili behar da ikasi den fonetika-fonologiako hizkera. Adierazpide zientifikoak balio behar luke pentsatzen eta esaten dena lotu, zehaztu eta sakondu ahal izateko, inola ere ez mezua ulertezin egiteko.

Azken aholkua: ez aritu irakurleak edo entzuleak zuek baino gehiago danielakoan (alegia, ez idatzi irakaslearentzat). Azaldu zuek esateko daukazuena ez dakinari gauzak garbi helarazteko helburuarekin eta moduan, betiere maila akademiko egokian.

#### **Lan-eskema orokorra**

a) Ulertu: maila azalekoenean zer dioen.

b) Kokatu (pasartea testu osoan; testuaren garaia, inguru teorikoa, autorea, etab.

c1) Ideia azpimarragarriak:

- Nagusi direlako testuan (edukiaren aldetik, hartzen duten lekuagatik...).
- Ikastaroan importante direlako (ahal bada, zehaztu zertarako).
- Aurretik dakizunarekiko desberdintasunen bat adierazten dutelako.

c2) Testuaren egitura: berea vs zuk egin dezakezun zatiketa zure iruzkin eta gai-hautaketaren arabera.

d) Ikastaroarekiko loturak adieraztean, zer gehitu duen irakasleak, zer ikaskide batek edo iruzkingileak berak, eta nondik atera den hori (eskoletako «apunteetatik», beste irakurgai batetik, beste ikasgairen batetik, etab.).

Oharra: garbi dago c1, c2 eta d ez direla nahitaez bata bestearen atzetik bereizirik jarri behar, eta testuaren arabera egoki gertatuko dela agian puntu batzuk besteekin lotzea edo urtzea. Hori, dena dela, jakinaren gainean egin behar da, aukeraren arrazoiaik argituz eta eskemaren puntu guztiei gutxieneko erantzuna emanez, era batera zein bestera.

## 1. testua

Lass, Roger. 1984. *Phonology: Introduction to Basic Concepts*. Cambridge, xvii-xix.

### TO THE STUDENT

Students often find phonology difficult. One reason, perhaps, is that compared with other branches of linguistics, like syntax or to some extent semantics, it's rather 'technical': seemingly remote from our everyday experience of language, and requiring from the beginning command of another technical discipline -phonetics. Facts about syntax and meaning -and even about phonetics - are more 'available' than the rather abstract but no less important matters that much of phonology is about. You can get a preliminary grasp of syntax, for instance, with little more equipment than an idea of sentence structure and some traditional grammatical terminology, elements of which are probably part of your general educational background. Everybody comes into linguistics knowing pretty much what nouns and verbs are; just nobody comes in knowing what stops and fricatives are. And even in phonetics, some of the facts are available at the beginning through rather simple observation (what is your tongue doing when you make a [t]?). However, you normally approach phonology pretty much cold, while at the same time a technical vocabulary and a set of concepts (place of articulation, state of the glottis, vowel height, etc.) that you've probably just learned, or are in the process of learning. It seems as if you have to superimpose one relatively new subject on another, almost from the start:

I'm afraid there's no way out of this: phonology is about things that are basically phonetic (see §r. 1 for details of the distinction between the two); it requires the concepts, terminology and notations of phonetics, in addition to erecting on top of this a whole new set of its own. In an ideal world, you'd not begin to do phonology until you had a solid background in all aspects of phonetics; but university courses aren't long enough for that, and things are usually studied in parallel that ought to go in sequence. Nonetheless, I find it impossible to talk intelligently about phonology without presupposing a certain amount of phonetic knowledge; more as one gets deeper into things. As a teacher, I can get around this by providing verbal footnotes at the appropriate times, explanations or definitions of things I assume my own students,

whose backgrounds I know, are unfamiliar with. And I have the advantage of feed back from a class as well. But in a book, written for a various and invisible audience, following all kinds of different courses, I don't have this resource.

To cope with this inevitable problem I have tried to distinguish carefully between new material, which you're not expected to know, and the background, 'old' material which you might be expected to know. Terminology and concepts that are specifically phonological or related to the contents of this book will be handled this way: the first occurrence of a new term will be in **bold type**, along with a definition or illustration. All major discussions involving this term will be listed in the index. So if in the course of reading you forget thing, you should be able to recover the introductory treatment. If on the other hand you come across general phonetic concepts that are not explained and unfamiliar, the best thing to do is look them up in some reliable text. The phonetics text in this series (Laver: forthcoming) should be especially valuable, as the author and I have tried to key our books to each other. Other useful sources are Heffner (1950), Malmberg (1963), Abercrombie (1967), Brosnahan & Malmberg (1970), O'Connor (1973), and Ladefoged (1975). For unfamiliar phonetic and other symbols, see the appendix.

In order to make the text clearer and easier to follow, I have avoided footnotes, and kept the references to a minimum. But each chapter is followed by a section of notes and references, which gives the major bibliography and notes on issues of interest which are subsidiary to the main text. As a rough guide through the large amounts of literature cited, I use the following conventions: \* marks works of importance that are either good in introductory accounts of certain matters, or technical but relatively accessible; \*\* marks works that are important and rewarding, but difficult. I have tried not to star too many items, but this does not mean that the others aren't worth reading.

The notes also give sources for the more exotic linguistic examples; data not credited is either so familiar as not to need reference (English, French, German, Latin); or is based on my own work with the languages in question or data given to me by colleagues.

The notes and references are conceived so that the best way of using them is to read each section of the text first, and then the notes to that section, first for comment on the text, then further reading. I have tried to make the book as self-contained as possible, but it's always worth following up some of the professional literature, and looking at other textbook accounts of given material. No two writers, even of

introductory texts, will present things in the same way, and differing approaches can be useful: successful grasp of material often seems to be a matter of getting on a writer's wavelength, and we all have different ones.

## 2. testua

Hurch, Bernhard. 1988. «*Phonetics and Phonology or Phonology ·and Phonetics*». *Zeitschrift für Phonetik, Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 41-3, 346-352.

